

PROBA ESPEZIFIKOA

2012ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

HISTORIA DEL ARTE

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Probak bi atal ditu:

1. atala: bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.


2. atala: bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi egilea, estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.
- Egin obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu, labur, zer testuinguru historiko eta artistikotan egin zen.

A)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

HISTORIA DEL ARTE

B)



2. atala:

GARATU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

A.- “ESKULTURA GREKOA”

- Eskultura grekoaren ezaugarri orokorrak.
- Eskultura grekoaren bilakaera.
- Aldi bakoitzeko eskultore eta obrarik adierazgarrienak.

B.- Francisco de Goya:

- Pintorea eta garaia. Testuinguru historikoa.
- Pinturaren bilakaera.
- Goyaren eragina ondorengoetan.



**EBAZPENA: ARTEAREN HISTORIA
(2012ko maiatza)**

Azalpenak

Probaren iraupena: ordubete.

Probak bi atal ditu:

1. atala: bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.


2. atala: bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi egilea, estiloa eta noizkoa den gutxi gorabehera.
- Egin obraren azterketa formal eta ikonografikoa.
- Aztertu, labur, zer testuinguru historiko eta artistikotan egin zen.

A)





Erantzuna:

- Egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia.

Kordobako meskitaren bi irudi dira (785-987). Iberiar penintsulako arte musulmanaren eraikin garrantzitsuenetako bat da. Kalifen garaian eraiki zen, omeiatarren dinastiaren mende.

Ezkerreko irudian otoitz-aretoa (*harama*) ageri da, eta eskuinekoan Kordobako meskitaren oinplanoa, *Abd ar-Rahman I.aren hasierako guneara* (768-788) (1) eta eraikinaren geroko hiru zabaltzeekin: *Abd ar-Rahman II.a* (833-848) (2), *Al Hakam II.a* (961-966) (3) eta *Al Mansur* (987-990) (4). Minaretea *Abd ar-Rahman III.ak* eraikiarazi zuen (946), eta esku-hartze hori baliatu zuen patioa handitzeko (5).

- Obraren azterketa eta iruzkina. Testuinguru historiko-artistikoa.

Inperio musulmanaren hedatzea Iberiar penintsulara iritsi zen 711n, Ipar Afrikako arabiar eta berbere talde batek Gibraltarreko itsasarte gurutzatu zutenean. Lurraldearen konkista, partez kapitulazio-itunen bidez lortua, urte gutxiren buruan amaitu zen, Kantauri itsasoaren ertzeraino iritsita.

Penintsulan ezarri ondoren, musulmanek **Al Andalus** izendatu zuten probintzia edo emirerri berria. Kordoban zuen hiriburua, eta Damaskoko kalifa omeiatarrek izendatutako emirrek gobernatu zuten.

Hala ere, 756. urtean, dinastia aldatu eta Bagdadeko abbastarrak nagusitu zirenean, bizirik irten zen omeiatar bakarrak, *Abd ar-Rahman I.a* Al Andalusera iritsi berriak, Kordobako emirerria independente aldarrikatu zuen. Estatu berri bat antolatu zuen, eta, harrezkero, Al Andalusen artearen eta kulturaren garapen handia hasi zen.

*Abd ar-Rahman*ek abiarazi zuen, 785ean, Kordobako meskitaren eraikuntza, eta haren ondorengoek zabaldu egin zuten. Iberiar penintsulako arkitektura musulmanaren obra nagusia da.

Meskita arkitektura musulmanaren eraikinik bereizgarriena da. Han biltzen dira sinestunak ostiraleko otoitza elkarrekin egiteko; horretaz gainera, justizia egiteko eta Korana irakasteko tokia zen. Mahoma profetaren etxean inspiratuta dago meskita, eta beti atal berak ditu:

- *Patioa*, garbiketarako egiteko iturria eta dorrea edo *minaretea* dituen. Minaretetik, muezinak otoitz egitera dei egiten die sinestunei.
- Otoitz-aretoa (*harama*), koloma edo zutabez hornitua eta Meka hiri santurantz orientatuta.
- *Madrasa*, eskola koranikoa.



Otoitz-aretoan, bestalde, zenbait parte daude:

Kibla, hondoko pareta (ariketan aurkezten den planoaren goialdean); haren aurrean ezartzen dira sinestunak otoitz egiteko.

- *Mihraba* edo kapera.
- Maksura, *mihrabaren* aurreko esparru itxi bat, kalifak eta agintariak erabiltzekoa.
- *Mimbar* delakoa, otoitza gidatzeko pulpitu.

Kordobako meskitako otoitz-aretoa, Abd ar-Rahman I.ak eraikiarazia (1), kiblarekiko perpendikularrean ezarritako hamaika nabe berdinez antolatua zegoen (nabeak eraikinaren oinplanoan ikus daitezke), eraikinari uniformetasun-sentsazioa emanez. Hartan, arku bikoitzeko euskarri gainjarriak nabari dira: *zirkulu-erdiko arkuak* goialdean eta euskarrian sartutako *ferra-arkuak* behealdean, barnealdean altuera handiagoa eta argitasuna emateko. Batzuek nahiz besteek dobela zuriak eta gorriak dituzte txandakatuak. Kolomek ez dute harroinik, fustea leuna da eta kapitela akanto-hostoz dekoratuta dago. Azken horien gainean, biribilki-modiloak daude.

IX. mendearen erdialdean, hiria hazten ari zela eta, Abd ar-Rahman II.ak handitu egin zuen Kordobako meskita, nabeak hegoalderantz luzatuta, kibla eraitsita eta zortzi tarte berri erantsita (eraikinaren oinplanoan 2 zenbakiarekin ageri dira).

Geroago, 946an, Abd ar-Rahman III.ak patioa zabaldu zuen (5).

Hurrengo aldaketa X. mendearen bigarren erdialdean egin zen, Al Hakam II.aren garaian (3). Nabeak berriro hegoalderantz luzatu zituen, eta kupula gingildun batzuk eraikiarazi zituen.

Azkenik, X. mendearen bukaeran, Al Mansurrek (4) ekialderantz zabaldu zuen meskita, eta mirhaba deszentratu geratu zen, ariketa honetan aurkezten den oinplanoan ikus daitekeen moduan.

XVI. mendean, katedral gotiko bat eraiki zen meskitaren barnealdean, eta kanpandorre bat, antzinako minaretea barnean daukana. Aldaketa horiek ez dira ikusten ariketa honetan aurkeztutako oinplanoan.

Meskitak, beste eraikin hispanomusulman batzuek bezala, eraikuntza-material pobre samarrak ditu. Hala ere, barnealdean dekorazio aberatsa dago: igeltsulanak, marmolezko edo harzurizko plakak, mosaikoak, idazkera apaingarria, eta abar.

Bestalde, arkitekto musulmanek eraikuntza preislamiatik hartutako kolomak erabiltzen zituzten; horregatik, Kordobako meskitaren euskarriak era askotakoak dira.



Mundu musulmaneko gainerako lekuetan bezala, estalki mota bat baino gehiago erabili zen: mirhabeen eta maksuran, kupulak; nabeetan, zurezko estalki arkitratatua. Kupuletan dago Kordobako meskitaren originaltasuna. Mediterraneo arabiarreko gainerako tokietan bezala *tronpak eta petxinak* erabili beharrean, arku gurutzatuak erabili ziren: oinarri karratuaren aldeetatik abiatu, eta oktogono bat eratzen dute. Hartan bermatzen da Erdiko *kupula gingilduna*, *mirhabeko gangan* gertatzen den moduan. Horrelako gangen erabilera, non nerbioak ez baitira haren gailurrean elkartzen, musulmanek egindako berrikuntza arkitektoniko garrantzitsu bat izan zen. Hala, nerbioek forma poligonal bat eratuz eta Erdiko giltzarria libre utziz ebakitzen dute elkar.

Gangaren apainduraren oso nabarmena da bizantziar eragina. Nagusiki, epigrafia-eta landare-motiboz apainduta dago.

Barnealdean lortzen den efektu apaingarriaren beste osagai batzuk hauek dira: dobeletako kolore-txandaketa, dobeletako apaingarriak, gingil anitzeko arkuak eta elementu apaingarri gisa baliaitutako argi-jokoak.

Barnealdeko dekorazio-joera nabarmen horrek kontrastea egiten du apaindura gutxiko kanpoaldeekin, gehienetan oso pobreak baitira.

B)



Erantzuna:

- Egilea, estiloa eta gutxi gorabeherako kronologia.

Karta-jokalariak izeneko obra da (oihal gaineko olio-pintura, 47 cm x 57 cm-koa). Paul Cézanne frantziar margolari postimpresionistak egin zuen 1890 eta 1892 artean, eta Parisko Orsay museoan dago. Arte garaikidearen aitzindarietako bat jotzen da Cézanne.



- Obraren azterketa eta iruzkina.

Cézannek prestatze-azterketa askotan landu zuen karta-jokalarien gaia, bai eta bost oihaletan ere. Beren neurria, irudikatutako irudi kopurua eta inguruan duten dekoratuari emandako garrantzi-maila direla-eta bereizten dira oihal horiek. Irudiko mihise hori da ezagunena. Mihise horretan, begira zeudenak ezabatu egin zituen, eta funtsezko irudiak bakarrik azaltzen dira: bi jokalaria.

Mahai txiki baten alde banatan daude jokalaria, ukondoak mahai gainean jarrita. Botila altu batek hondoko beirate batera garamatza; kanpoan paisaia bat dagoela sumatu daiteke. Bi gizonak jokoan kontzentratuta daude, eta kapela bana dute. Ikuslea ohiko behatzaile bihurtzen da, tabernetan partidei begira egoten diren horietako bat; izan ere, Cézannek eszenatik hurbileko plano batean kokatzen du, eta ez du ia espazio-erreferentziarik egiten.

Begitaratean ez dute adierazpen psikologikorik. Ezkerreko jokalaria —pipa erretzen ari denak— ia ez du inguru-lerrorik aurpegian. Jokalari horren finkotasuna kapelaren forma zilindrikoa (forma bera du mahukan ere), aulkiaren zuentasunak, pipako orban zuriak eta alkandoraren lepoak definitzen dute. Jokalari hori osorik agertzen da; bestea, berriz, moztuta dago. Bestearen atentzia —mugikortasun psikologikoa— jakaren kolore argi eta argiarekiko sentikorrek agertzen dute, kapelak eta trazuen forma ez hain zurrun eta izurtuagoak. Cézanneren ekarpena ez datza karakterizazio psikologikoan, kolorezko masak espazioan garatzeko moduan baizik.

Mahaiaren erdiko botilaren bolumen zilindrikoa argi-ukituek nabarmentzen dute. Botila oihalaren ardatza da, eta bi alde ia simetrikotan banatzen du; horrek indartu egiten du jokalarien arteko "borroka".

Argiztapen artifiziala itzaletan azaltzen da, bereziki botilaren isla zurian.

Cézannek kolore gutxi erabiltzen ditu, baina kolore horiek oihalaren izkina guztietara heltzen dira. Eskuineko gizonak tonu gris-horixkako jaka bat darama soinean, eta lagunaren galtzetan jarraitzen du tonu horrek. Ezkerrekoak, berriz, hainbat kolorerekin nahasitako tonu malbako jaka bat du. Tonu-nahasketa du hondoak —gorrixkak dira ugarienak, dena den—, mahaiarekin eta mahai-zapiarekin bat.

Botilaren tonuak kontrastea egiten du ezkerreko gizonaren karten tonu argiekin eta eskuineko gizonaren kartekin. Azken karta horiek itzaletan daude, eta hatzen kolore arrosaren gainetik eta mahaiaren kolore gorriaren trazuen gainetik nabarmentzen dira. Lepoen eta piparen kolore zuria ere nabarmendu egiten da tonu iluneko arroparen kolore-eremu zabalen gainean.



Cézanneren bi garairen artean dago koadroa: sentsazio inpresionistaren eta espazio-antolakuntza "konstruktiboa"ren artean, zeinean gai bakoitzak, xumeena izanda ere, berezko pisua eta existentzia izan behar baitu. Eszenako eraikuntza oso estilizatu da; lausotu egiten du errealismoa, eta modeloek denborarik gabeko dimentsioa hartzen dute. Espazioak eta bolumenak sortzeko erabili zuen molde berriak pinturaren emaitza eta teknika aldatzen ditu. Irudia planoka eraikitzen da; planoek, irudiaren inguruan biraka, bolumenen aurpegiak eratzen dituzte planoek egokitzen zaizkien kolore-trazuei esker. Teknika horrek pintura kubista iragartzen du.

- Testuinguru historiko-artistikoa. Egilea eta haren obra

Paul Cézanne Frantzia jaio eta hil zen (Aix-en-Provence, 1839-1906).

Postimpresionismoa izeneko mugimenduan kokatzen da haren obra; han sartzen dira Frantzia *impresionismoaren* ondoren —1880 eta 1905 bitartean, gutxi gorabehera— sortu ziren estilo pikturikoak. Mugimendu horretakoak dira, halaber, Gauguin, Van Gogh eta Toulouse-Lautrec. Mugimendu inpresionistari uztartutako margolari horiek indibidualitate artistikoa garatu zuten, eta horrek urrundu egin zituen lehen inpresionismoaren printzipioetatik. Postimpresionismoarekin, formak, marrazkia eta objektu eta pertsonen adierazkortasuna berreskuratu ziren.

Paul Cézanne espazioaren eta bolumenaren margolaria da. Haren obrak zenbait joera erakusten ditu: etapa inpresionistatik hasi, eta protoabstraktu eta prekubistaraino.

Inpresionistekin parte hartu zuen erakusketetan izandako porrotarekin etsita, jaioterrian kokatu zen, Aix-en, eta han bizi izan zen esperientzia berriak bilatu nahirik.

Cézannerentzat, artea sorkuntza mental bat zen. Ez zitzaizkion interesatzen naturaren itxura iheslariak; aitzitik, errealitatean egonkorra dena irudikatzen saiatu zen.

Natura guztia bolumen geometrikoetara murriztu daitekeela uste zuen. Gorputz geometrikoetan —zilindroak, konoak eta esferak— oinarrituta egindako eraikuntzatzen zuen pintura. Haien bidez, erliebea nabarmentzen ahalegintzen zen; ez argilunen bidez, kolorearen eta tonu epel eta hotzen kontrastearen bidez baizik. Perspektiba lineala alde batera utzi, eta askotariko perspektibak sortzen zituen zenbait ikuspuntutatik. Premisa horiekin, kubismoaren oinarria finkatu zuen.



Cézanneren ekoizpen piktorikoak elementu hauek hartzen ditu: paisaiak, natura hilak, erretratuak, karta-jokalariak eta bainulariak. Hona hemen haren obra esanguratsuenetako batzuk: *Urkatuaren etxea* (1873), *Arlekina* (1888-1889), *Txaleko gorriko mutikoa* (1890), *Karta-jokalariak* (1890-1892), *Emakumea kafe-ontziarekin* (1890-1895), *Sagarrak eta laranjak* (1895-1900), *Emakume bainulari handiak* (1898-1905), *Sainte-Victoire mendia* (1904-1906).

2. atala:

GARATU BI GAI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

A.- “ESKULTURA GREKOA”

- a) Eskultura grekoaren ezaugarri orokorrak
- b) Eskultura grekoaren bilakaera.
- c) Aldi bakoitzeko eskultore eta obrarik adierazgarrienak.

Erantzuna:

a) Eskultura grekoaren ezaugarri orokorrak

Eskultura, Grezian, artearen historiaren gailurretako bat izan da.

Eskultura gehienak galdu egin dira denborarekin. Gaur egun gorde direnetako asko erromatarren garaian egindako kopia eta erreproduzioak dira.

Eskultura grekoan, hala bakartuan nola erliebean, giza irudikapena da gai nagusia, *edertasun* idealaren, fisiko eta espiritualaren, adierazpentzat jotzen baita, batez ere gizonezkoen gorputz *biluzia*.

Eskultore grekoak, *neurriaren* eta *proporzioaren* bidez, formaren perfekzioaren bila dabilta. Horretarako, *kanon* bat finkatu zuten, gorputzaren atal guztien arteko erlazio matematikoen sistema bat alegia; burua zen kanonaren modulua.

Motiboak mitologikoak eta heroien balentriak dira; haietan, garaiko bizimodua islatzen da; adibidez, atletismo-lehiaketak.

Eskultura grekoaren ezaugarri nagusiak anatomiaren *edertasuna*, *harmonia* eta *oreka* dira, eta gorputzaren *idealizazioa*. Sentimenduak *adierazi* nahi dituzte, eta *mugimendua* irudikatu.



Askotariko *materialak* erabili zituzten (zura, harria, urrea, bolia eta abar), baina *marmola* eta *brontzea* nahiago zituzten. Eskulturak kolore leunez polikromatuak zeuden, baina gaur egun kolorea galdua dago.

b) Eskultura grekoaren bilakaera. Eskultore eta obrarik adierazgarrienak

1. Aldi arkaikoa (K.a. VIII-V. mendeak)

Aldi honetako eskulturan Ekialdeko eragina ondo nabaria da, batez ere egiptoarra: frontaltasuna, hieratismoa, estatikotasuna, forma itxiak... baina naturalismora joz pixkanaka.

Aldi honetako ezaugarriak mutilen (kouros) eta nesken (koure) *eskultura bakartuak* dira. Gehienak K.a. VI. mendean egin ziren, eta original greko ugari kontserbatu dira.

Kourosek atleta gazte biluziak, jokoetako garaile heroiko eta harroak, irudikatzen dituzte; aristokraziaren sinbolo dira, aristokrazia baitzen aldi hartan joko olinpikoetan parte hartzen zuen bakarra.

Koureek zutikako emakume apaizak irudikatzen dituzte, beti tunikaz jantziak. Tenplu eta santutegieng inguruan jartzen zituzten.

Biek eragin egiptoarra dute frontaltasunean: besoak gorputzari atxikita daude eta ezker hanka aurreratua; zurruntasuna, geometrismoa, arbendol-itxurako begiak, adats kizkurra eta irribarre arkaiko estereotipatua.

Aldi honetako eskultura gero eta naturalistagoa da, eta giza anatomiaren ezagutza gero eta sakonagoa erakusten du. Bilakaera eskultura batzuen bidez ikus daiteke: *Suniongo kourosa*, *Teneako kourosa* eta *Anavyssosko kourosa*.

Kourosen aldaera bat animalia bat eskaintzeko daramaten jaierratsuen irudikapenak dira; adibidez, *Moskoforoa*, txekor bat daramana, Rombos eskultorearena.

Erliebe-eskulturrari dagokionez, *frontoi*, *metopa* eta frisoetako espazio arkitektonikoek kontakizun mitologiko eta epikoen multzoak garatzeko esparrutzat erabili ziren. Adibidez, aipatzekoak dira hauek: *Artemisaren tenplua*, Korfun, angeluen muturretan eskala txikiagoko irudiak dituen; *Sifnostarren altxorrean*, Delfosen, eta *Hekatonpedonean*, Atenasen, irudi etzanak edo animaliak daude.



2. Aldi klasikoa (K.a. V. eta IV. mendeak)

Aldi arkaikoko zurruntasuna eta frontaltasuna desagertu ziren, eta, gaiak lehengo berak izan arren, konposizioan *errealismo* handiagoa bilatzen da. Ikuspuntu teknikitik, aldi honetako eskulturan *contrappostoa* agertu zen (eskultura baten gorputzaren atalen arteko oposizio harmonikoa, atal bat askatu eta mugimendua ematearren), *kanona* finkatu zen, aurpegi eder baina idealizatuak (*edertasun abstraktua*) eta oihalak modu naturalean tratatzea (*oihal bustiak*).

a) K.a. V. mendea

K.a. V. mendeko arteak artista handiak ditu, hala nola Miron, Polikleto eta Fidias.

- **Miron.** *Diskobolo*, diskoa jaurtitzen duen atleta, ospetsuaren egilea. Jatorrizko brontzearen marmolezko kopia erromatarrei esker ezagutzen dugu. Atleta diskoa jaurtitzera doan unea irudikatzen du. Mironen mugimenduaren potentzialitatea zuen kezka.

Konposizioa orekatua da, besoetako bi kurben kontrajartzeari esker. Azterketa anatomikoa perfektua da, baina aurpegiak ez du adierazkortasunik eta ileak naturaltasuna falta du. Haren beste obra bat *Atenea eta Marsias* da.

-**Polikleto.** Batez ere atleten eskulturak egin zituen, eta *kriselefantinoaren* teknika erabili zuen (bolizko eta urrezko plakaz estalitako zura) jainkoak irudikatzeko; dena dela, ororen buru, brontzea lantzen nabarmendu zen. Giza gorputzaren proportzio idealak lortzea zuen kezka, eta *kanon* edo erlazio perfektu bat ezarri zuen: giza gorputzak burua zazpi aldiz izan behar zuen. Bere teoria *Doriforoan* gauzatu zuen: lantza daraman atleta biluzi bat. Irudia aurrerantz doa, pisua hanka batean bermatuz bestea atzerantz doan bitartean, *contrapposto* perfektu bat osatuta. Haren beste obra batzuk *Diadumenos* eta *Amazona zauritua* dira. Kopia erromatarrei esker ezagutzen ditugu.

-**Fidias.** Eskultore klasikoetan ospetsuena. Haren eskulturen gorputzak oreka, perfekzio eta naturaltasunez beteak daude, gorputzari itsatsita anatomia ikusten uzten duten arropaz estaliak, *oihal bustien* teknika erabiliz.

Osperik handiena eman zioten eskulturak *kriselefantinoak* dira, kopiengatik eta literatura-deskripzioengatik baino ezagutzen ez ditugunak. Ospetsuena *Atenea Partenos* zen. Atenastarrek *Atenea*



gurtzeko tenplua zen Partenoia, eta bertako *naosean* jartzeko egin zuen. Olinpian beste estatua kriselefantino bat egin zuen, *Zeus* ospetsua; 10 metroko eskultura eseria da, jainkoen errege bizarduna bere tronuan irudikatzen duena koroarekin eta zetroarekin.

Beste bi Atenea bakartu egin zituen: *Promakosa*, brontzezkoa, eta Lemnia, erdipurdiko kopia bidez baino ezagutzen ez ditugunak. Haren lantegian egin ziren *Partenoiko erliebeen* lana gainbegiratu zuen (K.a. 447-432), bere lagun Periklesek eskatuta:

- *metopetan*, goi-erliebean, borroka mitologikoak (grekoak amazonekin, jainkoak erraldoiekin, Troiako gerra) eta Atenasek Gerra Medikoetan persiarren aurka lortutako garaipena irudikatu zituen.

- *frisoan*, behe-erliebean, *Panatenen prozesioa*: Ateneari peplo bat eskaintzera doazen dontzeilak dira.

- frontoietan, Atenearen, hiriaren jainkosa babeslearen, jaiotza irudikatzen da (*ekialdeko* frontoian), eta Atenasen nagusitzearren Ateneak eta Poseidonek egindako borroka (*mendebaldeko* frontoia).

a) K.a. IV. mendea:

K.a. IV. mendeko eskulturak emozioen adierazpen plastikoa eta naturalismo handiagoa beretu zituen. Aipatzekoak dira Eskopas, Praxiteles eta Lisipo.

- **Eskopas**. Adierazkortasuna eta dramatismoa zituen interesgune. Haren eskulturek patetismoa erakusten dute gorputz bihurtuetan eta begirada sakoneko aurpegietan. Obrak: *Menadea*, dantza dionisiakoan bihurturik; *Meleagro*, tragikotasun handikoa.

-**Praxiteles**. Edertasuna zuen kezka; haren eskulturak graziaz beteak dira, delikatuak, sentsualitatez beteak. Haren irudiek kakotu egiten dute gorputza (*kurba praxitelikoa*). Haren obrarik ezagunenak hauek dira: *Hermes Dioniso haurrarekin*; marmol leunduzko talde bat da. Hermes jainkoak mahats-mordo bat eskaintzen dio bere anaiari, ardoaren jainkoa izango denari. *Apolo Sauroktonoa*, musker bat zapaltzeko zorian dagoen gazte bat. Eta *Venus Knidokoa*, emakume biluzi baten lehen irudia, jainkosa bainuan sartzen irudikatzen duena.

- **Lisipo**. Gorputzaren kanon errealistago bat ezarri zuen: burua irudiaren zortzirena izango zen, eta, beraz, irudia luzeagoa da. *Apoxiomenoa* egin zuen: atleta biluzi bat da; besoak aurrerantz ditu, eta



izerdia kentzen ari da. Lisipo Alexandro Handiaren erretratugile ofiziala ere izan zen.

3. Aldi helenistikoa (K.a. III-I. mendeak)

Alexandro Handiak Ekialdean egindako konkisten ondoren, kultura grekoa hedatu egin zen, eta arte grekoa, herri konkistatuen ekarriekin, aldatu egin zen. Kultura misto bat sortu zen, non nahasian agertzen baitira tradizio klasikoa, orientalismoa eta bizitzaren ikusmolde berri bat, dagoeneko goi-mailako idealetan ez —aldi klasikoan gertatzen zen bezala— baizik eta bizitzaren gozamenean oinarritzen dena.

Eskulturan, klasizismoaren printzipioei eutsi bazitzaie ere, baretasuna, oreka eta proportzio klasikoak galduz joan ziren, eta *emozio-adierazkortasuna*, *handitasuna*, *tentsio dramatiko*a eta *mugimenduzaletasuna* agertuz joan ziren. Aldi helenistikoan, obren ezaugarri nagusia *erabateko naturalismoa* da, eta emoziorik sakonenak atzitzea eta irudikatzea. Jainkoak, orain, *jarrera dramatikoagoetan* irudikatzen dira, eta *errealismoa handitu* beharrak bizitzaren alderdi guztiak lantzea dakar; ondorioz, era askotako gaiak landu ziren: gazte zaharkituak eta zahar okituak, gorputz bihurrituak, munstroak, oinazea, itsustasuna eta abar.

Erretratua ere garatu zen, gordina eta zorrotasun psikologiko handikoa.

Hauek dira aldi honetako obra garrantzitsu batzuk: *Belvedereko gorputz-enborra*, *Venus Milokoa*, *Laokoonte* eta *haren semeak*, *Samotraziako Garaipena*, *Galaziar hilurrena*.

B.- Francisco de Goya:

- Pintorea eta garaia. Testuinguru historikoa.
- Pinturaren bilakaera.
- Goyaren eragina ondorengoetan.

Erantzuna:

Pintorea eta garaia.



Francisco de Goya (1746-1828) Espainiako XVIII. mendeko artearen ordezkari gorenena da. Haren pintura ezin da neoklasikotzat hartu, XVIII. mendearen bukaeraren eta XIX. aren hasieraren artekoa bada ere.

Urte erabakigarrietan bizi izan zen, eta hori haren obran islatzen da. Karlos III.aren erregealdian ilustrazioaren giroan erabat murgildu zen, eta lagun ilustratuak zituen —Jovellanos eta Moratín, adibidez—; haien ideiak "xurgatu" zituen, eta eragina izan zuten haren pentsamenduan. Karlos IV.aren asalduzko erregealdia ere ezagutu zuen. Baina, batez ere, Independentzia Gerraren basakeria eta ankerkeriek eragin zioten; haren ondorioz, desengainu handia hartu zuen, eta giza kondizioari buruzko gogoeta mingarria eragin zion. Azkenik, Fernando VII.aren erregealdi absolutistak sendotu egingo du ezkortasun hori. Goyak Espainiatik alde egitea erabaki zuen, eta Bordelen hil zen, deserrian.

Bestalde, haren bizimoduan eta ibilbide artistikoan arrasto nabarmena utzi zuten bi gaixotasunek: lehenak gortu egin zuen bizitzaren urte onenetan zegoela, eta bigarrenak bere barne-mundurantz bultzatu zuen, giza arimaren alderdirik ilunenetan sakontzera.

Eraginei dagokienez, berak natura bera aipatu zuen, baina Velazquez eta Rembrandt miresten ditu maisu handi gisa.

Bere obretan askotariko pintura-estiloak islatu zituen, imitatzeko inongo eredu edo garairi jarraitu gabe. Barrokoan murgilduta hasi zen. Rokokoaren hurbileko estiloko obrak egin zituen, eta, neoklasizismoan sartu gabe, estilo bere-berea sortu zuen. Goyak, bere artearekin, modernitaterako bideak aurreratu zituen: errealismoaren, inpresionismoaren eta espresionismoaren alderdi batzuk aurreratu zituen, baita surrealismoarenak eta informalismoarenak ere. Teknika eta genero guztiak landu zituen.

Pinturaren bilakaera.

- a) **Lehen obrak (1763-1781).** Francisco de Goya Lucientes Fuendetodos herrian jaio zen, Zaragozan, 1746an. Lehen urteak Zaragozan eman zituen, eta pintura barrokoaren kanonei jarraituz ikasi zuen pintatzen. Gero, Italiara joan zen ikasketak osatzera. Zaragozara itzulita, eragin barroko italiarreko fresko erlijiosoak egin zituen (*El Pilarreko gangak*). 1774an, Madrilera aldatu zen. Han, Tapizen Errege Fabrikarako *kartoiak* margotu zituen, gai kostunbrista herrikoiak eta rokoko-ukitukoak erabiliz. (*Merienda, Itsumandoka, Eguzkitakoa*).
- b) **Helduaroa (1781-1814).** Madrilen, Goyak ospea lortu zuen nobleen erretratuen egile moduan, eta gortean hasi zen erretratugile-lanetan. Karlos IV.ak ganbera-pintore izendatu zuen 1789an, eta kargu horrek dirua eta



prestigioa eman zizkion. Erretratuak errealitateari lotuak daude, eta, gainera, zorrotasun psikologiko handikoak dira. Asko egin zituen: *Chinchongo kondesa*, *Karlos IV.aren familia*, *Maja biluzia*, *Jovellanos*, eta abar. 1792an, gaixotasun larri batek gortu egin zuen, eta hori haren pintura gero eta dramatikoago eta tristeagoan nabari da. 1799an *Kapritxoak* izeneko akuaforte sail bat kaleratu zen; grabatu bakoitzak testu bat dauka edukia ironiaz azaltzen duena. Akuaforte horietan giza bizio eta akatsak modu gordinean kritikatzeko dira. Nabarmentzekoak dira *Arrazoiaren ametsak munstroak sortzen ditu* eta *Que viene el coco [Mamua dator!]* grabatuak. Goya Independentzia Gerraren lekuko aparta izan zen. 1808an *Gerraren izugarrikeriak* izeneko akuaforte sail bat egiten hasi zen, urte batzuk geroago argitaratu zena. Gerraren irudiak dira, zibilen sarraskiei eta arpilatzei buruzkoak, dramatismo handikoak.

- c) **Azken obrak (1814-1828).** 1814an, frantsesen kontrako borrokaren bi obra historiko enblematikoenak egin zituen: *1808ko maiatzaren 2a Madrilen* eta *Maiatzaren 3ko fusilatzeak Madrilen*. *Tauromakia* irudi saila eta *Disparateak edo Atsotitzak* akuaforteak, halako surrealismo batez kargatuak. 1820 eta 1823 artean, Goyak *Pintura beltzak* izenekoak egin zituen Manzanarenen ertzean zuen Quintas del Soro etxeko paretetan. Izen hori eman zaie Goyak oso kolore ilunak erabili zituelako: beltzak, arreak... orbanka aplikatuak. Gau-eszenak eta munstro-itxurako irudiak irudikatu zituen: *Pintura beltz horien adibideak* dira *Akelarrea*, *Bi agure zopa jaten* eta *Saturno bere semea jaten*, geroago surrealista eta espresionisten interesa piztu zutenak. 1823an Bordelera joan zen. Frantzia bere burua aske eta lasai sentitzen du, eta haren pintura adeitsu, bihurtu zen, argitsua, pintzelkada askekoa. *Bordeleko esne-saltzailea* obrak inpresionismoa iragartzen du. Hiri hartan hil zen 1828an.

Goyaren eragina ondorengoetan.

Goyaren eragina ez datza haren pinturaren jenialtasunean bakarrik, handia bada ere, baizik eta, batez ere, haren ibilbide piktorikoan, zeren XIX. mendean eta XX.aren parte batean gertatuko ziren mugimendu batzuei aurrea hartu baitzien.

XVIII. mendean azken hamarraldian, Goyak egindako margolan batzuetan erabilitako gaiak ohikoak izan ziren gero plastika erromantikoan: *Sutea*, *Hondoratzea*... dira izenburuetako batzuk, eta haietan agertzen diren pertsonaiak eroak, bidelapurak, gizon izutuak... dira. Gizakia babesgabe dago gertaera tragikoen eta naturaren indar eragabeen aurrean, geroago Géricaulten edo Turnerren pinturan gertatuko zen bezala.

Errealismoak ere badu zorrik Goyarekin. Goyaren errealismoa, batez ere azken urteetako, errealismo ankerra da, batere idealismorik gabea, gai herrikoiak edo lan-kontuak azaltzen dituena, mendean erdialdeko errealitatearen aurrean gaiak



eta jarrerak aurreratzen dituen. Pintore errealistek —adibidez, Courbet-ek— ez dute ukatzen Goyaren eragina. Courbeten obra nabarmenen artean, aipatzekoa da *Pintorearen lantegia*: han, pintoreak bere buruaren erretratua egin zuen, Goyak *Karlos IV.aren familian* egin zuen moduan.

Inpresionismoari dagokionez, eragina aitortua da. Manetek Espainiara jo zuen Velázquez eta Goyaren obra ezagutzera, eta bere konposizioetan behin baino gehiagotan emulatu zituen. Horren adibide dira *Txirularia* edo *Balkoia*. Baina ez gaietan bakarrik. Gorputzen gainean argiaren bibrazioak jasotzen dituzten ukitu arin eta enpaste oparoen teknika inpresionista dagoeneko ageri da Goyaren *Bordeleko esne-saltzailea* obran: Renoirren pinturaren antz handia du.

Pintura beltzetako pertsonaiak Goyaren mundu pribatuaren irudikapenak dira. Han agertzen diren munstro-itxurako gizakiak, zein modu basatian margotuar dauden, darien ezkortasuna... ezaugarri horiek jasoko ditu espresionismoak; adibidez, Munchen *Garrasia* obran. Era berean, surrealismoa inspirazio bila arituko da *Disparateak* edo *Atsotitzak* obraren irudipen onirikoetan.

Oro har, XIX. eta XX. mendeetako pinturak, beren eskola eta joera guztietan, Goya du inspirazio-iturri, gaietan, teknikan, estiloan eta mundu-ikuskeran.

Oharrak:

Hemen ematen diren erantzunak orientatzeko bakarrik dira. Galdera bakoitza garatzeko luzerari eta sakontasunari dagokienez, osotasunari eman behar zaio garrantzia; alegia, kontuanago hartu behar da erantzunetan alderdi guztiak agertzea, alderdiren bat sakon garatu izana baino.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2012ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2012

HISTORIA DEL ARTE

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10
2	1, 2, 3, 4, 6, 7